# Amabirjin Harria

## Lugar de oración para los pastores

# Amabirjin Harria

## Artzainen otoitz leku

Tal y como narra una de nuestras viejas leyendas religiosas, Aralar y Aizkorri, las dos montañas señeras de Gipuzkoa, se disputan el honor de ser el primer lugar en el que apareció la Virgen de Arantzazu. La misma afirma que allá por el siglo XV, la Virgen decidió presentarse ante un joven pastor del caserío Loidi de Amezketa encargándole que subiera hasta el lugar con tres tejas y cinco tablas para construir una capillita en su honor. El zagal regresó a su hogar para contar a sus padres el singular suceso del que había sido testigo, pero éstos no dieron mucho crédito a sus palabras. De nuevo en la montaña, la Santísima Virgen se le apareció por segunda vez para recordarle la petición, por lo que el muchacho volvió a relatar el mismo suceso, aunque esta vez con más convicción. Sus esfuerzos fueron baldíos. No sólo no le creyeron sino que, además de reprenderlo, le impidieron regresar a la sierra. Dicen que Nuestra Señora, enojada por los repetidos desaires, castigó a los incrédulos familiares con la siguiente maldición: *«Loidi, Loidi dan bitartean, txango edo mangorrik ez da faltako»* (Mientras Loidi sea Loidi, no faltará algún cojo o manco). En aquel momento, tras dejar marcada la huella de su pie en la peña donde había aparecido en dos ocasiones, decidió abandonar la sierra de Aralar para encaminar sus pasos hacia Aloña. Cerca ya de su destino, en el paraje conocido como Katabera o Biozkornia, hizo un alto en su larga caminata y, al mismo tiempo que bendecía los pueblos y valles que desde allí se contemplaban, se sentó



Hala dio gure ele zaharretako batek: Aralar eta Aizkorri, Aizkorri eta Aralar, Gipuzkoako mendi esanguratsuenetako bi, nor baino nor dabiltza Arantzazuko Ama Birjina lehenbizi non agertu zen ohorea nork eskuratuko. Kondaira horren arabera, XV. mendean Amezketako Loidi baserriko artzain gazte bati agertu zitzaion Ama Birjina, eta leku hartan haren omenezko kaperatxo bat jasotzeko agindu zion, hiru teila eta bost ohol igota. Mutikoa baserrira itzuli zen gurasoei agerpenaren berri ematera, baina aita-amek ez zioten sinesgarritasun askorik eskaini gaztearen hitzei. Berriro mendian, bigarren aldiz agertu zitzaion Ama Birjina gazteari eskaria gogorarazteko, eta berriro jaitsi zen mutikoa gurasoengana gertakaria berritzeko. Alferrik bigarrenez ere. Ez sinisteaz gain, errieta latza egin eta Aralarrera itzultzea galarazi zioten. Diotenez, Ama Birjinak, desaire haiekin guztiekin haserre, madarikazio honekin zigortu omen zituen senide sineskaitzak: «Loidi, Loidi den bitartean, txango edo maingurik ez da han faltako». Une hartan, bi aldiz agertutako harkaitz berean oinaren arrastoa utzi ondoren, Aralar utzi eta Aloña aldera jo zuen. Jomugatik gertu, Katabera edo Biozkornia deritzan inguruan, geldialditxoa egin omen zuen bere ibili luzean, eta handik begiesten diren herriak eta bailarak bedeinkatu zituen. Gero, harri batean eseri zen. *Amabirjinaren Sillea* deritza harrezkero harriari. Eta, handik laster, elorriz inguratutako paraje batean aurkitu zuen Uribarriko Rodrigo de Baltzategi artzainak.

Aralarrera itzulita, Pardelutseko iturritik Igaratzara bidean, Arrosarriko sakonean barna igarotzen direnek oraindik ere ikus dezakete Amabirjin Harria eta hark harkaitzean utzitako arrastoa. Kareharrizko bloke handi bat da, ia laukia. Bertan, lore sortaz gain, nitxo artifizial bat dago Ama Birjinaren irudi apala aterbetzeko. Pasa den mendearen erdialdera kokatu zuten irudia bertan. Egiaz, keinu borondatetsu honek nahasmena sortu izan du batzuetan bisitarien artean, gehienek uste baitute zulo hori dela Amabirjinak utzitako oin arrastoa, eta ez benetakoa. Benetako horrek oinaren forma askoz nabarmenagoa du eta goraxeago dago[1].

■ *Pequeña hornacina para acoger la imagen de la Virgen, donde los caminantes depositan su limosna con destino al santuario de San Miguel de Aralar.*

■ *Horma-hobi txikia Ama Birjinaren irudia gordetzeko. Ibiltariek hor uzten dituzte txanponak Aralarko San Migel santutegirako.*



■ *Piedra emplazada en el paraje de Arrosarri que dio lugar a la leyenda.*

■ *Arrosarriko parajean jarritako harria. Hortik sortu zen Amabirjin Harriaren kondaira.*

[1] Han galdezka eta hemen miaka aritu ondoren, jakin ahal izan dugu Periko Basurto eta Ramon Azkarate añorgatar fededun eta borondatetsuak izan zirela, kondaira hezur-mamitze aldera, 1948-49 urte bitartean, mailua eta zintzela hartu, harrian zuloa egin eta ondoren Amabirjinaren irudia barruan sartu zutenak. Donostiako Lourdes-Txiki paraje berezian gordetzen den irudiaren erreplika da Aralarkoa



sobre una roca a la que en la actualidad se denomina *Amabirjinaren Sillea*. Poco después, en un lugar rodeado de espinos, sería encontrada por el pastor de Uribarri Rodrigo de Baltzategi.

En lo relativo a Aralar, quienes transiten por la vaguada de Arrosarri en la ruta que desde la fuente de Pardeluts se dirige hacia Igaratza, pueden contemplar todavía la peña de Amabirjin Harri en la que supuestamente la Virgen dejó su huella. Es un gran bloque calizo, casi cuadrado, que, además del visible ramo de flores, cuenta con un nicho artificial para albergar la sencilla imagen de la Andra Mari colocada hacia mediados del siglo pasado. Este gesto, realizado con muy buena voluntad, crea en ocasiones una cierta confusión entre los visitantes, quienes suponen que esta oquedad es la que representa la huella de la Virgen, olvidándose de que la original, mucho más parecida a la forma de un pie, se halla en la zona superior[1].

[1] Según hemos podido indagar, fueron los entusiastas y devotos añorgatarras, Periko Basurto y Ramón Azkarate quienes, haciéndose eco de la leyenda, perforaron entre los años 1948-1949 este pequeño nicho con martillo y cincel, colocando en su interior la imagen de la Virgen, réplica de la que se conserva en el singular paraje donostiarra de Lourdes-Txiki.

- *Grupo de añorgatarras tras la colocación de la imagen en Amabirjin Harria. De izquierda a derecha: Periko Basurto, Joxe Basurto, Antxoni Zelarain (Potxoni), Antonio Idiakez y Lucas Ganuza.*

- *Añorgatarren taldea, Amabirjin Harrian irudia kokatu ondoren. Ezker eskuin, Periko Basurto, Joxe Basurto, Antxoni Zelarain (Potxoni), Antonio Idiakez eta Lukas Ganuza.*

Nolanahi dela ere, artzain eta ibiltarien ohitura da bertan geldialditxoa egitea, otoitz bat esan, arrastoan geratzen den urarekin aitaren egin, limosnatxo apal bat bertan utzi eta Amabirjinari desio bat eskatzea. Limosnak San Migeleko santutegira doan erromesen batek jasoko ditu gero, eta han zintzo eman, Goi Aingeruaren irudia argitzeko kandelarik inoiz falta ez dadin.

Bai, bai, badakit usadio horiek atzenduta geratu direla erabat, eta ez datozela bat gaur egungo bizimoduarekin. Baina... tradizioak eta sinismenak atzenduta geratzeak ez du esan nahi ahaztu behar ditugunik; aitzitik, on litzateke belaunaldiz belaunaldi eta ahoz aho transmititzea, gure sustrai kulturalak, gure erroak hor baitaude, baita gure arbasoen bizimoduaren eta izatearen lekukotza ere.







- *Amabirjinaren Sillea (Biozkornia-Aizkorri), lugar en el que descansó la Virgen en su peregrinar a Arantzazu.*
- *La huella que representa el pie de la Virgen situada en la parte superior de la roca.*

- *Amabirjinaren Sillea (Biozkornia-Aizkorri). Arantzazurako erromesaldian hor hartu zuen atseden Ama Birjinak.*
- *Ama Birjinaren oina irudikatzen duen aztarna, harriaren goiko aldean.*

En cualquier caso, es costumbre de pastores y caminantes el detenerse a rezar una plegaria, santiguarse con el agua que se acumula en la huella y pedir a la Virgen un deseo mientras depositan en la hornacina su humilde limosna. Ésta será recogida después por cualquier peregrino que se dirija hacia el santuario de San Miguel, donde la entregará fielmente para que jamás falten velas que acompañen al Arcángel iluminando su figura.

Sí, sí, ya sé que estas costumbres han quedado prácticamente olvidadas y no van con los tiempos actuales. Pero... sigue siendo un valioso mundo de tradiciones que debiera trasmitirse de generación en generación, pues forman parte del acervo cultural que refleja el sentir de nuestros antepasados. Pastores trashumantes comenzaron a habitar la montaña dando vida a sus rincones. Ellos descubrieron las moradas de Mari en Putterri y Txindoki. Sus mentes llegaron a imaginar a Roldán o Sansón lanzando enormes pedruscos, y también construyeron dólmenes para enterrar a sus difuntos. Con la llegada del Cristianismo lugares como Amabirjin Harri y San Miguel se convirtieron en reflejo de sus sentimientos religiosos, tendiendo, por qué no, esos puentes mágicos que a veces, casi de manera fugaz, parecen transportarnos hasta lo más profundo de nuestras raíces.



Artzain transhumanteak, haiek izan ziren mendigune honi bizia ematen aurrenekoak. Beraiek deskubritu zituzten Mariren babeslekuak Putterrin eta Txindokin. Haien irudimenean gorpuztu ziren Erroldan eta Sanson harri puska erraldoiak botatzen. Eta trikuharriak ere eraiki zituzten hildakoei lur emateko. Kristautasunaren etorrerarekin Amabirjin Harria edo San Migel bezalako lekuak beren fedearen eta erlijio sinisteen isla bihurtu ziren; halaxe sortu zituzten zubi magiko horiek iragan denboretara joan-etorriak egiteko. Hala, ia-ia oharkabean, gure erroen sakontasunetara garamatzate batzuetan alegiazko zubi horiek.



- *Poste indicador de Igaratza en la campa de Peri-Leku*

- *Igaratzako orientazio-mahaia Peri-Lekuko ordekan*

También hemos leído otros viejos relatos[2] en los que se apunta que la presumible aparición de la Virgen de Arantzazu en Aralar pudo establecer un compromiso que desde tiempo inmemorial fueron cumpliendo los pastores de la sierra. Se trataba de contribuir con un cordero o varios quesos al sostenimiento del convento de frailes Franciscanos de Arantzazu, custodios de la venerada imagen. Esta especie de diezmo se pagaba anualmente el día 22 de junio durante la feria de la antevíspera de San Juan (San Juan bezperan bezperango perian) que tenía lugar en las praderas de Igaratza, donde se sitúa el actual poste indicador. De ahí que el lugar sea conocido todavía por el nombre de Peri-Leku. Como señala José Zufiaurre Goya[3], «la reunión de los pastores tenía tres finalidades principales, que eran la compraventa de ovejas, el intercambio de carneros para la mejora y regeneración de los rebaños, y la entrega de la limosna para los frailes de Arantzazu, cuyo representante asistía al acto». Éste, en señal de agradecimiento, invitaba a los asistentes a unos tragos de vino de la bota, bebida que por entonces no acostumbraban a tener los pastores en sus chabolas. Durante los últimos años eran los propios frailes, y no sólo los de Arantzazu, quienes visitaban las bordas de la sierra solicitando a los pastores su ayuda, costumbre que desapareció hacia el año 1960.

Aipatutakoaz gain, irakurri izan ditugu bestelako ele zaharrak ere[2]: Arantzazuko Ama Birjina Aralarren agertzeak mendiguneko artzainen artean sortutako konpromisoaren berri ematen dute kontakizun horietako batzuek. Konpromiso horren arabera, artzainek arkumea bat edo hainbat gazta eman behar zituzten aspaldi-aspalditik Arantzazuko frantziskotarren komentura. Zerga moduko hau ekainaren 22an ordaintzen zuten, Igaratzako zelaietan ospatzen zuten San Juan bezperan bezperango ferian. Hortik datorkio egungo poste indikatzaileari Peri-Leku izena. Jose Zufiaurre Goyak hala azaldu izan du[3]: «Artzainen bilkurak hiru helburu nagusi zituen: ardiak saldu edo erostea, ahariak trukatzea artaldeak hobetzeko eta odol berritzeko eta Arantzazuko fraileentzako limosna biltzea; fraileen ordezkari bat han izaten zen, Igaratzako jaian». Honek, esker onez, zahatotik ardoa eskaintzen zien artzainei, hauek ez baitzuten halakorik izaten beren bordetan. Azkeneko urteetan, fraileak berak ibiltzen ziren, eta ez Arantzazukoak bakarrik, bordaz borda artzainei beren laguntzatxoa eskatzen. 1960 aldera desagertu zen ohitura hori.

---

[2] *Los amigos de Aralar, en el XX aniversario de su fundación*. 1948.
[3] *Mendiak*, tomo II, pg. 205.

[2] *Aralarko Adiskideak, bere sorreraren XX. urteurrenean*. 1948.
[3] *Mendiak*, II. tomoa, 205. orria.





# El *mandobide* de Esatoitzeko Zuloa

# Esatoitzeko Zuloko mandobidea

En esta ocasión, como en otras muchas en las que se alude a Aralar, resulta obligado citar al tolosarra Jesús Elosegi, que en su interesante libro *Las minas de cobre de Aralar (1732-1804)* hace referencia a los orígenes de este montaraz sendero. Según leemos en su página 141, durante el verano del año de 1790, el administrador de las Reales Fábricas y Minas de Cobre de Aralar, D. Juan Bautista de Urreta, dirigió un escrito al alcalde de Amezketa pidiéndole perdón por haber iniciado las obras de este *mandobide* o camino de caballerías sin previo aviso, solicitándole a la vez el permiso oportuno para proseguir con las mismas.

Oraingoan ere, Aralar aipagai dugun beste askotan bezala, Jesus Elosegi tolosarra ekarri behar dugu lerrootara. *Aralarko kobre meategiak (1732-1804)* liburu interesgarrian egiten du bidezidor honen jatorriaren aipua. 141. orrian dionez, 1790ko udan, Juan Bautista Urretak, Aralarko Kobre Meategien eta Errege Fabriken administratzaileak, idatzi bat bidali zion Amezketako alkateari. Idatzi horretan barkamena eskatzen zuen Urretak, mandobide hau egiteko lanak inolako baimenik gabe hasi zituelako; eta, aldi berean, lanekin jarraitu ahal izateko baimena eskatzen zuen.



- *Murete de piedra que soporta un tramo de la ruta conocida como Esatoitzeko Mandobidea.*

- *Esatoitzeko Mandobidearen zati bat finkatzen duen harrizko horma.*

Al día siguiente, el 29 de julio, el ayuntamiento de Amezketa le respondió demandando el cese de los trabajos porque suponía un «atentado cometido contra todos los respetos y derechos públicos de esta villa... causando daños en el camino antiguo[1] con las peñas que arrojan desde el nuebo». No sabemos cómo pero,

▪ *(Página siguiente). Desde las proximidades de Okerrango Gurutzea podemos admirar los saltos de Arritzaga.*

▪ *(Hurrengo orrialdea). Okerrango Gurutzetik hurbil Arritzagako jauziak ederretsi ditzakegu.*



▪ *Montaraz paraje por el que discurre la ruta de Esatoitzeko Mandobidea.*

▪ *Esatoitzeko Mandobidea basa-bidea.*

pese a la inicial oposición, este camino que atraviesa la sombría y vertiginosa pendiente de Esatoitzeko Zuloa terminó de ejecutarse uniendo el paso de Andregoene con un punto intermedio entre Akelo y Aitzelo que se conoce como Okerrango Gurutzea.

También nos clarifica J. B. de Urreta la razón por la que se decidieron a abrir esta nueva ruta al afirmar que «a causa de no poder transitar en los seis meses de Ibierno por la Sierra, por las muchas nieves que caen, y habiendo pensado los interesados de la Compañía de dicha Fábrica hacer la condución de todos los abastos por el valle de Araiz, se le ha comunicado... abrir nuevo camino y siendo el más oportuno por el sitio de Aquerlo».

[1] Entiéndase por *camino antiguo* la tradicional ruta que desde Amezketa sube a las minas por la borda de Anduritz.

Biharamunean, uztailaren 29an, Amezketako Udalak erantzun zion berehalakoan geratzeko lanak, «herriaren eskubide publiko eta errespetu guztien aurkakoak direlako eta bide zaharra[1] hondatzen dutelako, bide berritik erortzen diren harriekin». Ezin jakin nola, baina kontua da, hasierako oztopoen gainetik, Esatoitzeko Zuloko aldapa ospel eta bihurria zeharkatzen duen bidea egin, egin zela azkenean. Bideak Andregoeneko pasoa lotzen du Akelo eta Aitzelo erdibidean dagoen puntu batekin. Okerrango Gurutzea esaten zaio leku horri.

Argitu ere argitzen du J. B. Urretak zergatik erabaki zuten bide berri hau zabaltzea: «Neguko sei hilabeteetan, elur ugaria dela-eta, ezin denez mendigunean barna ibili, lantegiko interesatuek pentsatu zuten lanabes eta mea guztia Araitz ibarretik barna garraiatzea; hori dela eta eman zaie bide berria zabaltzeko erabakiaren berri; eta inondik zabaltzekotan, lekurik egokiena Akerlo inguru hori da».

[1] Udalak aipatutako bide zahar hori Amezketatik meatzeetara Anduritzeko bordatik barna doa.







# Gaintzako minazuloa

También relacionado con las minas, aunque más tardíamente, se perforó hacia el año 1964 una larga galería de 1,9 km desde Gaintza, con el objeto de localizar las vetas de Arritzaga. Para la toma de corriente eléctrica, procedente de Amezketa, se dispuso el transporte de postes desde Zarate hasta la bocamina. En esta labor tomaron parte dos *baserritarras* de Azkarate, Bixente Otamendi "Moka" y Batiste Irurzun "Martijene". Las dos instantáneas fueron tomadas por Jesús Elosegi el 1-8-1964. Como dato señalaremos que el tendido eléctrico no llegó a ponerse en marcha.



▪ *Batiste Irurzun "Martijene".*



▪ *Bixente Otamendi "Moka".*

Meatzeekin loturik, gerora ordea, 1,9 kilometroko galeria luze bat zulatu zuten 1964an, Gaintzatik hasita. Helburua zen Arritzagako zainak bilatzea. Argindarra Amezketatik hartu zuten eta, horretarako, posteak garraiatu zituzten Zaratetik meatzearen ahoraino. Lan horretan Azkarateko bi baserritarren laguntza izan zuten; Bixente Otamendi "Moka" eta Batiste Irurzun "Martijene"-rena, hain zuzen. Bi argazkiak J. Elosegik hartuak dira 1964ko abuztuaren 1ean. Argindar linea, ordea, ez zen jarri martxan.





# Anduritzeko Haitzorrotza

## La leyenda de Saltarri

# Anduritzeko Haitzorrotza

## Saltarriko kondaira



Si al iniciar el tramo del *mandobide* que desde Andregoene se dirige al cruce de Okerrango Gurutzea prestamos atención hacia el barranco de Arritzaga, podremos localizar la remozada borda de Anduritz, lugar en el que según se cuenta fueron abatidos dos maquis y heridos algunos más, allá por el año 1946 durante el duro periodo de la posguerra. En realidad a estos lugares se accede mucho más cómodamente desde Amezketa por el puente de Berazeaga siguiendo el denominado "Camino de Minas". Junto a ella, presidiendo este abrupto paraje, se alza la esbelta aguja conocida como Anduritzko Haitzorrotza o Altxorrotxa (648), cuya cumbre fue alcanzada por primera vez el 24 de julio de 1934 por Rafael Carranque y Lino Argómaniz[1]. Pese a contar con varias vías de dificultad, su acceso normal se efectúa mediante una sencilla trepada de unos 35 m (III-).

En general, el monolito ha sido bautizado por los montañeros como Saltari, denominación errónea a todas luces. Saltarri, y no Saltari, es el nombre con el que conocen los lugareños a la cresta que partiendo de la brecha cercana se desarrolla hacia el E. hasta alcanzar el paso de Andregoene. Cuentan los pastores que este topónimo, recordando un inusitado suceso, tiene su origen en una leyenda muy extendida por Amezketa. Según la misma, una cabra, a lo que se ve sumamente montaraz, logró impulsarse desde la cresta hasta la cumbre del monolito mediante un audaz y acrobático

[1] San Martin, J. "Anduitzko Arzorrotza". *Pyrenaica*, Nº1, pg. 21. 1954.

Andragoenetik Okerrango Gurutzera mandobide bat doa gorantz. Bide horretan abiatu orduko, Arritzagako amildegira soa jo, eta han ikusiko dugu Anduritzeko borda eraberritua. Diotenez, borda horretan bertan bi maki akabatu zituzten, 1946 urte inguruan, gerraondoko urte beltz eta latz haietan. Egia esan, paraje hauetara askoz erosoago iristen da Amezketatik, Berazeagako zubitik "minetako bidea" hartuta. Bidearen alde batera, jendarme bat irudi, goratzen da Anduritzeko Haitzorrotza edo Altxorrotxa (648 m). Haren gailurra 1934. urtean jo zuten estraineko aldiz Rafael Carranquek eta Lino Argomanizek[1]. Hainbat

[1] San Martin, J. "Anduitzko Arzorrotza". *Pyrenaica*, 1 zenbakia, 21. orrialdea. 1954.

salto. De este modo pudo conseguir "su primera escalada" y perpetuar esta gesta dejándola plasmada en la propia toponimia.

También circula una segunda versión según la cual un vecino de Amezketa, durante la segunda mitad del S. XIX, decidió poner fin a su vida lanzándose al vacío desde lo alto del peñasco. Siendo totalmente cierto el hecho, no sabemos si el topónimo existía ya con anterioridad o surgió tras el suceso.

eskalada bide badira haitzean, baina ohiko igoera bidea samurragoa da, nahiz eta eskuak erabili behar diren 35 metroko tarte batean (III-).

Monolitoa Saltari izenarekin bataiatu dute eta ezagutzen dute mendizale gehienek. Okerreko izena, inondik ere, Saltari ez, baizik eta Saltarri esaten baitiote bertakoek atakatik ekialderantz hedatzen den ertzari. Andragoeneko pausoa harrapatu arte doa ertza, hain zuzen. Artzainek diotenez, toponimo hori Amezketa aldean oso zabalduta-ko kondaira batean sortua da, gertakizun ezohiko batean. Ele zahar horren arabera, ahuntz batek –ahuntz zaildua inondik ere– halako saltoa eman zuen, ertzetik monolitoaren tontorreraino iritsi baitzen brinkoan. Halaxe lortu omen zuen ahuntzak harkaitzaren "aurreneko eskalada", eta jauziaren norainokoa betikotzeko, toponimian bertan laga zuen arrastoa.

Bada bigarren bertsio bat ere, ilunagoa zertxobait. Amezketako bizilagun batek bere buruaz beste egin zuen XIX. mendearen bigarren erdialdean, harkaitzaren tontorretik salto eginda. Benetakoa da gertaera; ezin jakin, ordea, toponimoa lehenagokoa den, edo gertaera horren ondoren sortua.



▪ *Desde la borda de Anduritz podemos divisar el monolito del mismo nombre y la horcada desde la que discurre su VN. Hay quien afirma que la roca se asemeja a un gran perro pastor, que sereno, vigila la milenaria entrada de Aralar.*

▪ *Anduritzeko bordatik izen bereko monolitoa bistaratzen da, bai eta iparraldeko aurpegia igarotzen den lepoxka ere. Badira artzain zakur handi baten traza hartzen diotenak, beti tente, Aralarko antzinako atea zaintzen.*



▪ *Monolitotik Arritzaga aldera hartutako ikuspegi ederra.*

▪ *Bella estampa desde el monolito hacia el barranco de Arritzaga.*

# Los *pelotaleku*

## Un medio para el ocio de los pastores

# Pelotalekuak

## Artzainen jolastoki

En Aralar, la estancia veraniega de los pastores era casi continua en otros tiempos. Instalados en la sierra, permanecían durante largas temporadas sin abandonar sus rebaños. Su ocasional irrupción en el valle tenía por motivo el hacer acopio de provisiones, aunque también eran requeridos por sus familiares para las labores de siega en las Malloas. Teniendo en cuenta que la cantidad de ovejas por rebaño era menos numerosa que en la actualidad, el pastor contaba, mientras el ganado pastaba antes de ser recogido para el segundo ordeño del día, con más tiempo libre. Esta razón les permitía reunirse por las tardes para practicar juegos y deportes de lo más variados. Así se juntaban en los *proba-harri* para medir sus fuerzas, en los *korrikaleku* para dar vueltas a un prado circular, o en los *pelotaleku* para demostrar sus habilidades en este juego.

A propósito de este último deporte, es preciso hacer referencia a dos trabajos realizados por José Zufiaurre Goya, cuya labor de investigación ha permitido el localizar con exactitud la mayoría de los lugares en los que se practicaba. El primero fue publicado en el *Anuario de Eusko-Folklore* (T. XXVI) de los años 1975-1976, mientras el segundo, más completo aún, vio la luz en la enciclopedia *Mendiak* (T.II) del año 1981. Como señala su autor «más de un montañero..., empezará a preguntarse en qué lugar se encontrará el frontis que permite la práctica... de la pelota». Pero no debemos llevarnos a engaño. Los pastores jugaban a la pelota, al parecer desde tiempos remotos hasta bien entrado el S. XX, sin necesidad de ninguna pared. El terreno de juego, parecido a las actuales pistas de tenis, consistía únicamente en una superficie plana sobre la que se dibujaba un rectángulo o en ocasiones una H, siendo de este modo los fondos libres. Sus líneas, esbozadas a modo de surcos, se realizaban con azada, aunque en las últimas épocas, perdida la traza original, se conformaban con colocar en el suelo varios palos que delimitaran la imaginaria cancha. Una línea central, sin ningún tipo de red, venía a separar a los contendientes en dos parcelas de parecidas dimensiones. Cuando el número de pastores reunidos era impar, se "invitaba" a uno de ellos a ejercer la labor de juez, en ocasiones esencial ante la precariedad de la cancha. El juego consistía en una especie de tenis pero golpeando con la mano la pelota antes de que llegara al suelo, ya que después no botaba. Los tantos se contabilizaban de uno en uno hasta llegar a los 12, 20, 22 e incluso 30, según se hubiera acordado al inicio. La propia pelota, de factura rústica, se fabricaba aprovechando como núcleo de goma la punta redonda de una vieja albarca, la cual se rodeaba con hilo de lana de oveja conseguido tras deshilachar unos calcetines en desuso. Para evitar que se soltara, valiéndose de una aguja, cruzaban varias veces por el entramado la punta del hilo. Era el final de la operación ya que carecía de cuero o esparadrapo que la cubriera. La pelota estaba lista para ser utilizada. Parece ser que en los últimos tiempos, como consecuencia de la modernización, llegaron a utilizarse algunas pelotas de goma.

Garai batean, artzainek ia uda osoa ematen zuten Aralarko goiko larreetan. Denboraldi luzeak egiten zituzten mendialdean, artaldea zaintzen. Noiz edo noiz, oso gutxitan, jaisten ziren ibarrera, janarien edo beharrezko lanabesen baten bila, eta familiei Malloetako larreak ebakitzen eta belarra biltzen laguntzera. Garai hartan, artaldeak ez ziren gaur egun adina burukoak, eta ardiak bazkatzen zeuden bitartean, bigarren jetzialdirako bildu aurretik, artzainak denbora izaten zuen beretzat. Halaxe biltzen ziren beste artzainekin, era guztietako jokoak eta kirolak egiteko. "Proba-harrietan" elkartzen ziren, indarrak neurtzeko; "Korrikalekuetan", zelai zirkular bati itzuliak emateko; edo "Pelotalekuetan", pilota jokoan beraien trebezia erakusteko.

Azken kirol hau dela eta, ezin aipatu gabe utzi Jose Zufiaurre Goyak egindako bi lan; haren ikerketei esker zehaztu ahal izan da pelotaleku hauetako gehienak non kokatu ziren zehatz-mehatz. Lehen lana 1975-1976 urteetako *Eusko-Folklore Urtekarian* (XXVI. alea) argitaratu zen, eta bigarrena, are osoagoa, *Mendiak* entziklopedian (II. alea), 1981. urtean. Egileak berak dion bezala, «honez gero mendizale bat baino gehiago hasiko zen galdezka non demontre ote zegoen frontisa pilotan egiteko». Ez gaitezen tronpatu, ordea. Artzainek aspaldiaspalditik jokatu izan dute pilotan, XX. mendea ondo sartu arte, inolako hormaren beharrik gabe. Jokalekua, gaur egungo tenis pisten antzekoa, zelai lau bat izaten zen: lauki zuzen bat marrazten zuten zelaian eta, batzuetan, H moduko bat. Atzealdeak libreak ziren. Zelaiaren ertzak aitzurrez egindako ildoen bidez markatzen zituzten hasiera batean; azken aldera, ordea, jatorrizko trazak galdurik, lurrean makilak jarrita moldatzen ziren, jokalekua mugatzeko. Erdian beste lerro batek –tartean inolako sarerik gabe– bi eremu berdinetan banatzen zuen zelaia. Bildutako artzain kopurua bakoitia zenean, haietako bat epaile lanak egitera "gonbidatzen" zuten, eta eskerrak, haien egitekoa premiazkoa baitzen nola-halako jokalekuan. Jokoak ere bazuen tenisaren antza, baina artzainek eskuekin jotzen zioten pilotari, eta lurrera iritsi baino lehen, belardi haietan ez baitzuen boterik egiten. Tantoak banaka zenbatzen zituzten, 12, 20, 22 edo 30era iritsi arte, hasieran adostutakoaren arabera. Pilota bera ere, artzainek egiten zuten eskuz: abarka zahar baten mutur biribildua baliatzen zuten arima bezala eta, ondoren, zarpailduta-ko galtzerdi batzuen artilearekin biltzen zuten estu-estu. Ez askatzeko, orratz eta hariarekin hainbat puntada ematen zizkioten. Huraxe zen pilota, ez baitzuten ez larrurik ez esparatrapurik gainetik jartzeko. Itxura denez, ordea, badirudi modernitatea ere iritsi zela mendiko pelotaleku haietara, eta azken urteetan gomazko pilotak ere erabili izan zituztela.



▪ *Uniko Pelota Lekue, rellano situado al pie de Uakorri.*

▪ *Uniko Pelota Lekue, Uakorriren magalean kokatutako zelaigunea.*

José Zufiaurre, en el trabajo antes mencionado de Mendiak, señala la existencia de una docena de *pelotalekuak* repartidos por Aralar, añadiendo que la mayoría se localizan en la zona central de la sierra. Por su cercanía a nuestra zona de estudio podemos mencionar los de Antsesao (Unaga) e Inguitzi (Beloki), y solamente uno, conocido como Uniko Pelota Lekue, dentro de la misma. Su emplazamiento, al NE. de la majada de Latosa, es un pequeño rellano existente junto a la alambrada que recorre parte de las Malloas separando el valle de Araitz de la Mancomunidad de Enirio-Aralar. Situado en la vertiente guipuzcoana, sobre los 1.205 m, se extiende al N. de los peñascales de Elizkaitz, en la primera loma que enlaza con la fuerte pendiente herbosa que nos conduce hacia la cima de Uakorri.

En una de nuestras numerosas incursiones por el valle de Araitz, pudimos conversar sobre este tema con Agustín Askaray, morador del caserío Ostokoitz de Gaintza. Además de confirmarnos la existencia del *pelotaleku* de Uni, nos refirió que él, junto con varios pastores de Latosa, también llegó a jugar a la pelota en un punto cercano al collado de Egurbide. El lugar en cuestión se encuentra al N. del caprichoso promontorio rocoso de Urritte o Urgutte (1328), en la hondonada que asciende

Jose Zufiaurrek, Mendiak bildumarako eginiko lanean zehaztu zuen gutxienez dozena bat pelotaleku bazirela Aralarren barna barreiatuak, gehienak mendilerroaren bihotzean. Malloetatik gertu, hor dira Antsesaokoa (Unaga) eta Inguitzikoa (Beloki). Malloetan bertan, berriz, bakarra: Uniko Pelota Lekue. Latosako saroitik IEra kokaturik dago joko-eremu hori, Enirio-Aralarko Mankomunitatea eta Araitz ibarra banatzen dituen alanbre-sarearen ondoko zelaigunetxo batean. Gipuzkoako isurian dago berez, 1205 metro inguruan, Elizkaitzeko harkaitzen iparraldera, Uakorri gailurrera daraman belar malda pikoarekin lotzen den lehen bizkarrean.

Araitz ibarrean eginiko sartu-irteera ugarietako batean Agustin Askarayrekin hitz egin ahal izan genuen gai honen gainean; Gaintzako Ostokoitz baserriko nagusiarekin, alegia. Baietz, Uniko Pelotalekua guk aipatutako lekuan izan zela baieztatu zigun, eta bera, Latosako beste hainbat artzainekin batera, aritua zela pilotan Egurbideko lepotik gertu dagoen beste puntu batean. Urritte edo Urgutteko



▪ *Ixidro Altuna (Etarte-Azkarate) ejecutando sus característicos saltos.*

▪ *Ixidro Altuna (Etarte-Azkarate) bere ohiko jauziak egiten.*







▪ *Pared rocosa denominada Pillota Lekue, junto al raso de Urbiri en Urreako Haitze.*

▪ *Pillota Lekue deritzon harrizko horma, Urbiriko zelaigunearen ondoan, Urreako Haitzen.*

desde Aintziriko Ordeka hasta Egurbide. Sobre el mapa puede localizarse a unos 1.210 m de altitud. El lugar es conocido por los pastores como Bentzarte.

Quisiéramos cerrar este apartado con un singular apunte que viene a cumplir la regla de la excepcionalidad. En el ingente trabajo toponímico de J. Elosegi *Aralar-mendi ta Aralar inguruko leku-izenak* encontramos mencionado el paraje de Pillota-Lekue, situado en el modesto peñascal de Urreako Haitze. Este dato nos puso sobre la pista de algún nuevo emplazamiento que era preciso investigar. La casualidad nos llevó hasta el caserío Gurbil Haundi, cuyo *nagusi*, buen conocedor de los alrededores, supo aclarar nuestras incógnitas. Nos refirió que a escasos metros del collado de Gurdille, una vez salvada la alambrada que permite ascender hacia Urreako Haitze, existe un corto pasillo que finaliza ante el rellano herboso de Urbiri. A la izquierda de este recogido lugar puede verse el pequeño promontorio rocoso sobre el que, aprovechando su lisa pared, jugaban a la pelota en otras épocas. Nuestro informante, a quien todavía gusta fabricar pelotas, recuerda haber utilizado este recinto en sus tiempos mozos al igual que lo habían hecho sus antepasados.

Lógicamente estas modalidades deportivas dejaron de practicarse hace muchos años, pero han permanecido en la memoria de las gentes como reflejo de una vida pastoril que, aún adaptándose a los nuevos tiempos, va camino de desaparecer.

muino harritsu bitxiaren iparraldera dago aipatutako lekua, Aintziriko Ordekatik Egurbidera igotzen den sakonean. Mapan 1210 metro inguruan lekutu daiteke sakonune hori. Bentzarte izenez ezagutzen dute artzainek.

Ohar bitxi batekin itxi nahiko genuke atal hau, salbuespen legea betetzen duen ohartxo batekin. J. Elosegik eginiko *Aralar-mendi ta Aralar inguruko leku-izenak* lan toponimiko itzelean, zer eta Pillota-Lekue deritzan paraje bat aurkitu genuen, Urreako Haitzaren ondoan. Hari horri tiraka hasi ginen ea paraje hartan beste pelotalekurik izan ote zen ikertzen. Kasualitateak Gurbil Handi baserrira eraman gintuen, eta bertoko nagusiak, ingurua inork gutxik bezala ezagutzen baitu, argitu zigun misterioa. Azaldu zigun Gurdilleko lepotik metro gutxira, Urreako Haitzera igotzeko gainditu behar den alanbre-sarea pasa eta gero, badela pasillo motz bat Urbiriko zelai belartsuraino. Leku bazter horren ezkerrean, harkaitz muino bat antzeman daiteke, hantxe, haren horma leuna aprobetxatuz, jokatzen zuten pilotan beste garai batzuetan. Gurbil Handiko nagusiak berak –oraindik ere pilotak egiten erretzen ditu orduak– gogoan du txikia zela han pilotan jokatu izana, bere arbasoek egin izan zuten bezala.

Denboraren gurpilean, aspaldi utzi zioten Aralarko biztanleek pilota joko honi, baina jendearen oroimenean gorde dira orduko oihartzunak, artzain bizimoduaren zantzuak. Jakin du artzaintzak garai berriei egokitzen, baina iduri du ezarian-ezarian desagertze bidean dela bizimodu horren aztarnak.

■ *Antiguo emplazamiento de la Antziko Harria, bajo la cumbre de Urritti.*

■ *Antziko Harria paraje honetan zegoen garai batean, Urritiko gailurraren altzoan.*













# *Proba-harriak*

## Un desafío a la fuerza de los pastores

# Proba-harriak

## Artzainen indarrak neurtzeko erronka

Al igual que sucede con los *pelotalekuak*, al analizar el tema de las *proba-harriak* hemos contado con la inestimable ayuda de los trabajos realizados por José Zufiaurre y Jesús Elosegi. El primero cita la existencia de dos piedras en Aralar que eran utilizadas por los pastores para medir sus fuerzas, alzándolas de diferente manera. Según su peso, una, la de Saltaarri (Alotza), de aproximadamente 4 arrobas[1] (50 kg), se levantaba a pulso sin que pudiera apoyarse en el cuerpo; mientras la segunda, junto a la majada de Goroskintxo (entre Errekonta y Mendibil), pesaba unas 11 arrobas (140 kg) y debía levantarse hasta el hombro. Hoy día ambas han desaparecido por motivos diferentes. Si la primera se destruyó al ser rota en pedazos, la segunda fue lanzada monte abajo perdiéndose por las empinadas laderas de la montaña.

1 En el año 1849 se adoptó en España el Sistema Métrico Decimal para la unificación de pesas y medidas, pero el mundo rural ha mantenido en muchos casos sus unidades tradicionales. Para calcular cualquier peso en kg bastará con tener en cuenta que una arroba equivale a 12,5 kg.

Pelotalekuen kasuan bezala, *proba-harriak* aztertzeko ere ezinbestekoak izan ditugu Jose Zufiaurrek eta Jesus Elosegik egindako lanak. Lehenak aipatu zuen bazirela Aralarren bi harri artzainek beren indarrak neurtzeko erabiltzen zituztenak, eta bi modutan jasotzen zituztela harriok. Pisuaren arabera, haietako bat, Saltarrikoa (Alotza), 4 arroakoa[1] gutxi gorabehera (50 kilo), pultsuan jasotzen zuten, gorputzean bermatu gabe. Eta bestea, Goroskintxoko saroiaren ondoan zegoena (Errekonta eta Mendibil artean), 11 bat arroakoa (140 kilo), sorbaldaraino jaso behar zuten. Gaur egun, desagertuak daude biak arrazoi ezberdinak direla medio: bata hainbat puskatan txikitu zuten, eta bestea, norbaitek mendian behera bota eta galdu egin zen.

1 Espainian 1849an hartu zuten Sistema Metriko Dezimala pisuak eta neurriak bateratzeko, baina irakurlea jabetuko da nekazari giroko herrietan artean mantendu dituela garai bateko neurriak. Pisua kilotan kalkulatzeko aski da jakitea arroa bat 12,5 kilo direla.

## Zealarko Harria

Recientemente, gracias a la información de antiguos pastores de Amezketa, Azkarate y Gaintza, hemos podido conocer la existencia de otras cinco *proba-harriak* que, repartidas por diferentes parajes, salpican de humanidad y cultura los rincones de la sierra. La primera se sitúa, fuera de nuestra zona de estudio, en el lugar de Zealar Beheko Ordeka, a media altura entre el barranco de Arritzaga y la cima de Ganbo. Este pequeño rellano se alza sobre los 1.204 m de altitud ubicándose en él los restos de varios rediles (*artizkuneak*) que otrora sirvieron para recoger y ordeñar a las ovejas. Rodeada de un entorno incomparable, y presidiendo el verde pastizal, localizamos una piedra, partida en dos trozos, que nuestro informante Ignacio Galarza reconoció como la *proba-harri* que hace ya más de medio siglo utilizaban en sus desafíos los pastores de Pardeluts y Zotaleta. Una posterior visita al lugar, provistos de la consiguiente balanza romana, sirvió para que, pegada la piedra, pudiéramos desvelar su peso. Las casi 9 arrobas (110 kg) que arrojó habían sido alzadas en otros tiempos por varios pastores entre los que se encontraba Dionisio Otermin, Domingo Artano y el propio Ignacio Galarza. Posteriormente, se tienen noticias de que en la década de los ochenta fue levantada por el harrijasotzaile de Asteasu Gabriel Iraola. Sus dimensiones aproximadas son de 70x35x23 cm.



▪ *La* proba-harri *de Zealar Beheko Ordeka tras unir los dos fragmentos.*

▪ *Zealar Beheko proba-harriaren bi puskak erantsi ondoren.*



▪ *Zealar Beheko Ordeka. En la jornada del 12-10-2004, para disfrute de sus acompañantes, Luis Mari y Urtzi Telleria se brindaron a levantar las* proba-harriak *señaladas en este trabajo.*

▪ *Zealar Beheko Ordeka. 2004ko urriaren 12an, Luis Mª eta Urtzi Telleria prestu agertu ziren lan honetan aipatutako proba-harriak jasotzeko. Hura gozamena han bildutakoena!*

## Zealarko Harria

Oraindik orain, jakin ahal izan dugu gutxienez beste bost proba-harri ere bazirela. Amezketako, Azkarateko eta Gaintzako garai bateko artzainek eman digute horren berri. Aralarko hainbat parajetan sakabanatuak, hango eta hemengo herri giroa eta kultura piztu izan dute harri horiek. Aurrenekoa Zealar Beheko Ordekan dago, Arritzagako zintzurraren eta Ganbo tontorraren arteko erdibidean. Zelaigune txiki hori 1204 metrora goratzen da; badira han hainbat artizkuneren arrastoak, inoiz ardiak bildu eta jezteko erabiliak. Inguru paregabean, belaze berdeetan lerden, harri bat atzeman genuen, bi puskatan erdibitua; baietz, Inaxio Galarza gure berriemaileak huraxe zela proba-harria baieztatu zigun; duela mende erdi baino gehiago Pardeluts eta Zotaletako artzainek beren dematan erabiltzen zuten harri bera. Geroztik leku hartara eginiko beste bisita batean, harria itsatsi eta pisatu egin genuen: 9 arroa (110 kilo). Pisu hori jasotzen neurtu zituzten indarrak hainbat artzainek, besteak beste Dionisio Oterminek, Domingo Artanok eta Inaxio Galarzak berak. Geroztik badira berriak Gabriel Iraola Asteasuko harri-jasotzaileak ere altxa ote zuen harri hori. Gutxi gorabeherako neurriak hauek dira: 70x35x23 cm.





▪ *Gracias a Inazio Galarza logramos localizar la piedra de Zealar.*

▪ *Inazio Galartzari esker lortu genuen Zealarko harria aurkitzea.*





▪ *Restaurando la piedra de Zealar (10-9-2006).*

▪ *Zealarko harria konpontzen (2006-9-10).*

▪ Proba-harri *encontrada en el delicioso paraje de Zealar Beheko Ordeka.*

▪ *Zealar Beheko Ordekako paraje ederrean aurkitutako proba-harria.*



## Aintziko Harria

Gracias a la información de Agustín Askaray de Gaintza y José Artola de Amezketa, hemos podido localizar una segunda *proba-harri* entre las cumbres de Egurtokiko Gañe y Labeango Punte. La piedra se sitúa a la entrada del recogido valle de Antziriko o Aintzegiko Ordeka, nada más superar la barrera rocosa que se alza sobre la fuente de Pardeluts. Conocida como Aintziko Harria es de factura un tanto irregular y pesa casi 11 arrobas y media (141 kg). En otros tiempos varios pastores de Amezketa, Pascual Lekuona de Asentzinea, Juan José Artola de Garagartzenea (Erretoretxe Zaharra), Ignacio Galarza... intentaron cargarla sobre sus hombros, aunque sólo hemos podido confirmar que la alzaran Domingo Artano de Elorrain en el año 1965 y Martín Bengoetxea de Villabona. Este último, que después ejerció como harrijasotzaile durante algunos años, ocupaba por aquel entonces la borda de Astarteta junto a Luis Agirrezabala. El propio Martín no recuerda si fue durante el verano de 1980 o 1981, con 18 ó 19 años, cuando levantó la piedra de paso a la fiesta de Igaratza que se celebra el segundo domingo de agosto. Varios amigos suyos y el pastor Juan José Artola fueron testigos del hecho que quedó reflejado en la fotografía que adjuntamos. Pocos recuerdan ya su utilidad, pero la piedra se mantiene todavía en su lugar tal y como hemos podido comprobarlo en una de nuestras visitas efectuada el 12 de octubre del 2004, jornada en la que el harrijasotzaile lasartearra Luis Mª Telleria se brindó a levantarla para realizar el consiguiente reportaje gráfico.

A finales del año 2008, hallándose ya este libro a las puertas de su publicación, hemos tenido noticia de que la mencionada piedra ha sido descendida a lomos de un mulo hasta la localidad de Amezketa. En la jornada del 9 de noviembre el errezildarra Aimar Irigoyen realizó una exhibición alzando sobre sus hombros cinco veces la afamada piedra conocida como Albizuri Handia (166 kg) en 3´ 04´´ y en 5 ocasiones la Antziko Harria en otra tanda de 3 minutos. En los tiempos que corren el futuro de nuestra piedra se antoja muy diferente. Tras su presentación oficial, so pretexto de evitar su deterioro, al parecer será guardada en el ayuntamiento de Amezketa para ser utilizada en posteriores pruebas. La Antziko Harria, otrora sólo conocida por los pastores, abandonará definitivamente su pequeño reino de la montaña perdiendo la magia de las alturas. Privada de su original emplazamiento, inicia un incierto peregrinaje en el que el secular silencio de la sierra será sustituido por ocasionales apariciones en público acariciada por notables deportistas. En pleno S. XXI quizá las cosas deban ser así, pero... me hubiera gustado que en lugar de descender la piedra fueran los harrijasotzailes quienes ascendieran al encuentro de su entorno natural. También es verdad que, una vez perdido el anonimato, es difícil que cualquier resto cultural que tenga un valor etnográfico pueda sustraerse a la codicia o simplemente falta de sensibilidad de quienes encuentran en la destrucción su única fuente de placer. La próxima vez que visite los pastizales de Aintziriko Ordeka llegaré hasta el rincón en el que descansaba la piedra y sentiré cierta nostalgia. Por un momento cobrará más fuerza la imagen de Luis Mª Telleria alzando la piedra rodeado de una docena de amigos bajo la sorprendida mirada de cumbres como Ganbo, Pardarri y Urritti. Incluso, hasta podré imaginar la escena en la que Domingo Artano, hace ya casi medio siglo, alzó la piedra ataviado con su habitual indumentaria de pastor.



- *La pesada mole de Aintziko Harria.*
- *Antziko harri puska astuna.*

## Aintziko Harria

Gaintzako Agustin Askarayk eta Amezketako Jose Artolak emandako argibideei esker bigarren proba-harri bat ere aurkitu ahal izan dugu Egurtokiko Gaña eta Labeango Punta tontorren artean. Aintziriko edo Aintzegiko Ordeka ibar gordearen sarreran dago harria, Pardelutsko iturriaren gaineko harkaitz harresia gainditu orduko. Aintziko Harria esaten diote, nahikoa traketsa da, berez, harria, 11 arroa eta erdi ingurukoa (141 kilo). Aspaldi batean, Amezketako hainbat artzain saiatu omen ziren jasotzen, besteren artean Asentzineako Paskual Lekuona, Garagartzeneako (Erretoretxe Zaharra) Juan Jose Artola eta Inaxio Galarza, baina jaso, ziur jaso, bik egin zuten, guk dakigula: Elorraingo Domingo Artanok, 1965ean, eta Villabonako Martin Bengoetxeak. Azken hori, gero harri-jasotzaile ere ibilitakoa, Astartetako bordan egoten zen artzain, Luis Agirrezabalarekin batera. Martinek berak ez du garbi gogoratzen noiz jaso zuen harria, 1980ko edo 1981eko udan, 18 edo 19 urte zituela. Igaratzako festara bidean zihoala izan zela bai; abuztuko bigarren igandean, beraz. Hainbat lagun eta Juan Jose Artola artzaina izan ziren lekuko, ondoko argazkiak erakusten duenez. Gutxik oroitzen dute jada harri horren erabilpena, baina harriak han jarraitzen du, egonarria infinituz, bere lekuan geldi. Hala frogatu ahal izan genuen 2004ko urriaren 12an, hara egindako bisitetako batean. Egun hartan, Luis Mª Telleria harri-jasotzaile lasartearrak jaso zuen harria. Ordukoak dira argazki hauek.





- *El harrijasaotzaile Martin Bengoetxea de Villabona con la Antziko Harria acompañado por un amigo y el pastor Juan Joxe Artola.*
- *Martin Bengoetxea harri-jasotzaile villabonatarra Antziko Harriarekin, lagun bat eta Juan Joxe Artola artzaina ondoan dituela.*



- *Luis Mari Telleria levantando la Aintziko Harria, 12-10-2004.*
- *Luis Mari Telleria Aintziko Harria jasotzen, 2004ko urriaren 12an.*



- *La balanza romana, ancestral artilugio utilizado para pesar la Aintziko Harria.*
- *Balantza erromatarra, Aintziko Harria pisatzeko erabili ohi zen antzinako tresna.*









▪ *Secuencia de imágenes con Luis Mari Telleria alzando la Aintziko Harria.*

▪ *Luis Mari Telleriak Aintziko Harria jaso zueneko irudiak.*

# Lakuntza-Amezketa

## Una prueba atlética de mucho peso

# Lakuntza-Amezketa

## Zama handiko korrika proba

Como ya hemos reflejado en algún otro lugar de este libro, uno de los retos más atrayentes para quienes habitan al pie de las montañas es el de competir a través de ellas mediante desafíos concertados entre dos deportistas, o simplemente tratando de establecer marcas que unan dos lugares en el menor tiempo posible. En la vertiente navarra de Aralar, especialmente en los valles de Larraun y Araitz, siempre ha habido una larga tradición de caminantes y korrikalaris que, pese al tiempo transcurrido, aún perduran en la memoria popular. Nombres como los de "Juanagorri", Francisco Etxarri "Napar-zarra", Vicente Erro, Juan Cruz Azpiroz "Txikito de Arruitz", Aldaregia o Argiñarena son recordados con admiración a la hora de citar gestas atléticas.

En cuanto a los pueblos guipuzcoanos, Amezketa es sin duda el centro de atención de estas aventuras deportivas, contando en este caso con la figura destacada de José Manuel Mujika (1878-1957)[1]. Conocido cariñosamente bajo los apelativos de "Korrikari Xaharra" y "Amexketa", este pastor que moraba durante el verano en la borda de Astarteta, se movía con una destreza inusual por la montaña, pese a lo cual, siguiendo la moda de aquella época, concertó sus mayores desafíos en tramos de carretera y plazas de toros. Una de las pruebas que más expectación levantó en su tiempo fue la celebrada el 29 de enero de 1907 contra el mencionado "Napar-zarra", debiendo cubrir la distancia entre Tolosa y Lekunberri. Pese a sus numerosas victorias, y

[1] Otermin, J.M. *Amezketa: Bide luze bezain malkarrak*, pg. 423-426. 2005.

Mendialdean bizi denak berezkoa du aposturako, lehiarako grina: mendian barna nor lehenago iritsiko hemendik hara, edo herri batetik besterako bidea nork lasterrago osatu... Mendia bizitoki ez ezik, lehiarako plaza ere izan da mendez mende. Nafarroako Aralarren, Larraun eta Araitz bailaretan batez ere, betidanik izan da ibiltari eta korrikalarien tradizioa. Urteen joanean ez da oraindik erabat isildu haien ospea eta sona. "Juanagorri", Francisco Etxarri "Napar-zarra", Vicente Erro, Juan Cruz Azpiroz "Arruizko Txikito", Aldaregia eta Argiñarena... miraz oroituak haiek guztiak, halako lehiak gogora ekartzean.

Gipuzkoa aldean, berriz, Amezketa da halako herri lasterketen bihotza, eta amezketarren artean izen bat nagusi: Jose Manuel Mujika (1878-1957)[1], "Korrikari Xaharra" edota "Amexketa" goitizenekin ezagunagoa. Uda sasoian Astartetako bordan egoten zen artzain;



▪ *José Manuel Mujika (1878-1957), pastor conocido cariñosamente bajo los apelativos de "Korrikari Xaharra" y "Amexketa" (año 1943).*

▪ *Jose Manuel Mujika (1878-1957), maitekiro "Korrikari Xaharra" eta "Amexketa" goitizenez ezaguna (1943. urtea).*

[1] Otermin, J.M. *Amezketa: bide luze bezain malkarrak*, 423-426. orrialdeak. 2005.







▪ *Momento de la prueba realizada por José Artola en el año 1966.*

▪ *Jose Artolak 1966. urtean eginiko probaren unea*

aún cuando acertó a pasar en primer lugar por Betelu, no pudo finalizar el trayecto, abandonando, agotado por el esfuerzo, en las pendientes de Azpirotz.

Pero quizá los desafíos más genuinos eran los que tenían lugar en algún paraje de la sierra, por ejemplo, como en el caso que nos ocupa, a través de los intrincados vericuetos del barranco de Minas. Así, el 27 de octubre de 1946 dos amezketarras, José Fermín Sagastume y José Koxme Elurbe, midieron sus fuerzas en el recorrido Amezketa-Refugio de Igaratza-Amezketa, resultando vencedor el primero con un tiempo de 1h 46' 38". Poco después, el 14 de marzo de 1948, Pello Sagastume atravesó Aralar desde Lakuntza hasta Amezketa en 4h 1' 24", excelente marca si se tiene en cuenta que, emulando a los antiguos pastores y estraperlistas, cargó a sus espaldas con 50 kg de peso repartidos en dos placas de plomo[2].

[2] Iturriza, A. "Mendia apustuen lekuko bihurtzen denean". *Egin*. 11-1-1996.

ezohiko trebezia eta indarra zuen mendian barna mugitzeko, baina halaz ere, halakoa izan garaiko moda, errepidean eta zezen plazetan egin zituen korrika apustu handienak. Ikusmin handiena eta hauts gehien harrotu zuen proba 1907ko urtarrilaren 29an jokatu zuen aurrez aipatutako "Napar-zarra"-ren aurka: Tolosatik Lekunberrira nor lehenago iritsiko, horra erronkaren nondik norakoa. Aurrez garaipen asko lortua zen, Betelutik ere bera pasa zen aurrena, baina ezin izan zuen proba amaitu; lehertuta, pott eginda geratu zen Azpirozko maldetan.

Demarik ederrenak, ordea, mendian bertan jokatutakoak izaten ziren, Mehatzeetako amildegi sakonetan barna, esaterako. 1946ko urriaren 27an, adibidez, Jose



Esta singular marca, olvidada durante años, volvió a ser noticia en el año 1966 cuando otro amezketarra, José Artola, decidió repetir la gesta con el objeto de mejorar el antiguo registro. La propia Federación, informada del evento, envió un juez para que controlara de cerca el buen desarrollo de la prueba y verificara a su vez los tiempos realizados. Pese a los años transcurridos, hemos tenido la suerte de escuchar de viva voz al principal protagonista, así como a su fiel acompañante Ignacio Galarza, quienes se dedicaron a preparar con gran minuciosidad y mimo todos los detalles de la tentativa. Tras un primer ensayo realizado el 10 de abril por el trazado original y con las mismas planchas metálicas que aún conservaban, decidieron construir un nuevo chaleco, esta vez relleno de perdigones protegidos por un doble fondo. Otro entrenamiento, realizado con el debido sigilo el 18 de julio, confirmó las buenas perspectivas, lo cual animó al deportista a hacer públicas sus intenciones. El día 14 de agosto, a las seis en punto de la mañana, el bueno de Joxe partía del estanco de Lakuntza en dirección a Igaratza con su carga al hombro. Según recuerda, contaba entonces con 36 años de edad y pesaba 70 kg, muestra de que mantenía un estado físico envidiable. Un pertinaz sirimiri le acompañó a lo largo de toda la travesía poniendo a prueba la seguridad de sus pasos, especialmente en el descenso del camino de Minas, pese a lo cual depositó en el estanco de Amezketa su pesada carga tras haber empleado un tiempo de 3h 40' 10". La marca anterior quedaba mejorada por lo tanto en 21' 14".

■ *Una multitud de curiosos acompañó a Joxe Artola en el tramo final de la prueba.*

■ *Jendetza ugarik bat egin zuen Joxe Artolarekin probaren amaiera aldean.*

Fermin Sagastume eta Jose Koxme Elurbe amezketarrak nor baino nor aritu ziren, Amezketa-Igaratzako aterpea-Amezketa bidea nork lehenago egingo. Sagastume gailendu zen. Bere denbora: 1h 46' 38". Handik lasterrera, 1948ko martxoaren 14an, Pello Sagastumek Aralar osoa zeharkatu zuen, Lakuntzatik Amezketara. Lau ordu pasatxoan egin zuen itzulia: 4h 01' 24" zehazki. Marka bikaina kontuan hartuz gero garai bateko kontrabandista eta estraperlisten antzera, 50 kilo zeramatzala bizkar gainean, berunezko bi xaflatan banaturik[2].

Marka bitxi hau, urtetan ahaztua, albiste izan zen berriro 1966an: beste amezketar bat, Joxe Artola, herrikidearen marka ontzen saiatu zen urte hartan. Federazioak, ahaleginaren berri jakitean, epaile bat bidali zuen probaren zuzentasuna zaintzeko eta denborak zehatz hartzeko. Urte batzuk joan dira geroztik, baina protagonistaren beraren ahotik eta haren laguntzaile leial Inaxio Galarzaren ahotik jakin ahal izan dugu proba hura nondik nora joan zen. Batak ala besteak zehatz-mehatz

2 Iturriza, A. "Mendia apustuen lekuko bihurtzen denean". *Egin*. 1996-1-11.





■ *Junto al caserío Espila Saletxe, casa natural de Pernando Amezketarra.*

■ *Pernando Amezketarraren jaiotetxea den Espila Saletxe baserri ondoan.*



Las pertinentes verificaciones de la báscula dieron un peso de 50,5 kg para el chaleco debido al sudor y a la lluvia absorbidos, mientras su propio peso, fruto del esfuerzo, había descendido a los 68 kg. Como señala el acta recogida en la Federación Atlética Guipuzcoana, a la salida acompañaban al atleta 13 personas, número que fue aumentando notoriamente, sobre todo a partir de Igaratza.

## Tiempos registrados durante la prueba

| | |
|---|---|
| Estanco de Silvestre (Lakuntza) | 0h 00' 00" |
| Trosketa Itturri | 0h 35' 20" |
| Martxon Txabola | 1h 55' 30" |
| Buzón de Bustita (Errenaga) | 2h 02' 45" |
| Minas de Arritzaga | 2h 45' 40" |
| Anduritzeko Borda | 3h 11' 00" |
| Estanco de Amezketa | 3h 40' 10" |



■ *Finalizando la prueba en Amezketa.*

■ *Amezketako baserrietan zehar proba amaitzear.*

prestatu zuten ahalegina. Apirilaren 10ean egin zuten lehen entsegua, jatorrizko bidean eta bere garaian Sagastumek erabilitako xafla berberekin, hain zuzen. Entsegu horren ondotik erabaki zuten txaleko berri bat egitea, geruza bikoitzekoa eta tartean perdigoiak sartuta, 50 kilora iritsi arte. Isilka-misilka, uztailaren 18an egin zuten bigarren entrenamendua, eta ikusirik bide onetik zihoala, jendaurrean jakinarazi zuen bere asmoen berri. Abuztuaren 14an, goizeko 06:00etan puntuan, Lakuntzako estankotik Igaratza aldera abiatu zen Joxe, txaleko astuna jantzirik. 36 urte zituen orduan, eta 70 kiloko gizasemea zen, sasoi beteko gizona. Xirimiriak atertu gabe jarraitu zuen egun osoan Artolaren eginahala, eta tentu handiz ibili behar izan zuen amezketarrak Mehatzeetako harkaitz labainetan behera. Euriak euri, Amezketako estankoaren parean zama utzi zuelarik, epaileak hiru ordu 40 minutu eta 10 segundoko denboran geratu zuen erlojua. Aise ondu zuen marka. Txalekoa pisatuta, 51,5 kiloko zama erakutsi zuen baskulak, euriaren eta izerdiaren eraginez zertxobait astundua, beraz. Joxe Artola bera, berriz, 68 kilo zen, ahaleginaren ondorioz bi kilo argaldu ondoren.

## Probari dagozkion denborak

| | |
|---|---|
| Silvestreren estankoa (Lakuntza) | 0h 00' 00" |
| Trosketa Itturri | 0h 35' 20" |
| Martxon Txabola | 1h 55' 30" |
| Bustitako buzoia (Errenaga) | 2h 02' 45" |
| Arritzagako minak | 2h 45' 40" |
| Anduritzeko Borda | 3h 11' 00" |
| Amezketako estankoa | 3h 40' 10" |